

LAUSOTUTAKO AHOTSAK

ANIZTASUNAREN
ALDEKO
BIZIKIDETZARAKO
GIDA
PEDAGOGIKOA

Eskura. Giza Eskubideen aldeko
Baliabide Pedagogikoen Zentroa
Tf: 688 83 82 60
www.eskurazentroa.eus

Izenburua: Lausotutako ahotsak. Aniztasunaren
aldeko bizikidetzarako gida pedagogikoa

Egilea: Zaira García Dafonte

Irudiak: Freepik

Ekoizpena: Eskura Zentroa

Diseinua eta maketazioa: Quod Sail

Argitalpen-data: 2022ko abendua



*Aske zara lan hau kopiatu, banatu eta jendurrean
komunikatzeko, baldin eta helburu hezitzaileekin
egiten baduzu, helburu komertzialetarako erabiltzen
ez baduzu eta egiletza aitortzen baduzu.*

Sarrera

2021ean, Eskura giza eskubideen aldeko baliabide pedagogikoen zentroak, Mondragon Unibertsitateko ikasleekin batera, [“Lausotutako ahotsak-Voces difuminadas”](#) 12 minutuko mikrodokumentala sortu zuen. Bertan, profil desberdinak dituzten lau pertsona helduk modu erraz eta atseginean kontatzen dituzte beren bizipenak.

Gida didaktiko hau ikus-entzunezko baliabidearekin batera doa eta aniztasunaren aldeko bizikidetzaren ikuspegi positibo eta aberasgarritik ikusarazteko helburua du. Hori guztia, giza eskubideak oinarri hartuta eta kultura demokratikoa eta errespetuzkoa eraikitze xedearekin. Mikrodokumentala eta gida 12 eta 18 urte bitarteko taldeei zuzendutako baliabideak dira, eta hainbat testuingurutara egokitu daitezke.

Ekoizpen honek jarraipena ematen dio 2020an Eskurak antolatutako giza eskubideen aldeko baliabide pedagogikoen II. azokari, [“Ikusezin bihurtutako pertsonak, eskubide lausotuak”](#) izenburupean ospatu zena. Bertan, ikusezin bihurtutako pertsonak eta haien eskubideak ikusarazteko baliabide pedagogikoak zabaldu ziren.

Gaur egungo sistemak eta gizarteak “ezberdintzat sailkatzen” dituen pertsonen eskubideen urraketak errazten dituela nabarmendu behar da. Hala ere, material hau kalitatezko jauzi bat ematen saiatzen da, eta aniztasuna ideia horretatik haratago jorratzen du. Ikuspegi bat proposatzen du, non garrantzitsuena eskubide-urraketak bizi izan dituzten pertsonen esperientziak, gustuak, itxaropenak eta ametsak diren, urraketa horiek agerian utziz, baina arreta horietan jarri gabe. Konpromisoa da erakustea biktimak izandako pertsonak hori baino askoz gehiago izan daitezkeela, eta gizarte gisa aberastu egiten gaituela puntu komunak aurkitzeak eta berdintasunezko bizikidetzaren lortzeak. Hala, horretan hezteko eta entrenatzeko programak eta materialak beharrezkoak dira.

Illo horretan, hainbat eragilek hainbat espaziotan (formala, ez-formala eta birtuala) antolatutako hezkuntzaren helburua herritar bakoitzaren garapen soziala eta pertsonala bermatzea da. Pilula honek, hezkuntza-eremu formalean, [Bizikidetzaren](#) lehen helburu orokorrari laguntzen dio. Zehazki, lehenengo helburu espezifikoiari egiten dio erreferentzia: bizikidetzaren sentsibilizatzeko beharra. Era berean, zeharkako kompetentziak garatzen ditu: hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko, elkarbizitzarako, eta izaten ikasteko. Baita hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako, gizarerako eta herritartasunerako, eta kompetentzia motorrerako diziplina-kompetentziak ere. Hezkuntzaren eremu ez-formalean, herritartasun aktiboa, plurala eta elkarriketarako gaitasuna duena eraikitzen laguntzen du. Gure inguruan bizi diren pertsona guztien eskubideetan oinarritutako bizitzak sustatzen ditu. Halaber, bizitza hauek garatzeko erantzukizun partekatua bilatzen du, baita desberdintasunak diskriminazio-arrazoi ez izatearen bermea ere.

Horrela, bizikidetzaren hezteko aniztasunaren sentsibilizazioan oinarritzen da, eta horren bidez, ezberdinen bizi-egoera onartzea lantzen da, kontakturik gabeko elkarbizitza baketsu soiletik aldentuz.

Gomendioak

- Hizkuntza taldearen profilerak, adinera eta testuingurura egokitu (hezkuntza formala edo ez-formala). Hurbilekoa eta ulergarria izan dadila.
- Taldearen homogeneotasun-presuntzioa alde batera utzi. Kontuan izan taldea pertsona/ikasle desberdinez osatuta dagoela.
- Kontzeptuak barneratzea erraztuko duen konfiantza- eta berotasun-giroa sortu.
- Taldearekiko entzute aktiboa aktibatuz. Zer esaten ari den eta zer ez den esaten ari ulertu.
- Ez konbentzitu edo doktrinatu. Hausnarketara eta enpatiarako gonbidatu.
- Diskriminazio- edo mespretxu-jarreraren aurrean, lasaitasunez agertu, eta agerian utzi iritzi diskriminatzaileak eta kaltegarriak direla beste pertsona batzuentzat.
- Aniztasunaren aldeko iritziak balioan jarri. Haien ahotsa eta parte-hartzea sustatu iritzi diskriminatzaileen aurrean.

Proposamen didaktikoa

Hiru lan-saio proposatzen dira, bakoitza 50-55 minutukoa. Lehenengo blokeak lehenengo bi saioak biltzen ditu eta aniztasunaren kontzeptura hurbilpen bat da. Bigarren blokea, saio bakarrarekin, bizikidetzaren kontzeptura gerturatzen da. Horrela, gida honetako funtsezko bi elementuak sendotu nahi dira. Gainera, zeharka, honako kontzeptu hauek ere lantzen dira: giza eskubideak, kultura, generoa, mugikortasuna, iruditegia, marjinak eta zentroa, idiosinkrasia, topaguneak eta konpromisoa.

1. Blokea. Aniztasuna

1. Lausotutako ahotsak mikrodokumentala

12-18 urte (D.B.H. eta Batxilergoa)	12'	Proiektorea, audioa eta interneta
Lausotutako ahotsak mikrodokumentalaren proiektzioa		

2. Hausnarketa

12-18 urte (D.B.H. eta Batxilergoa)	35 - 40'
-------------------------------------	----------

Aholkua! Hizkuntzaren zailtasuna adinera egokitu.

Oharra! Aldez aurretik giza eskubideak landu ez badira, agian zaila izango zaie galdera batzuei erantzutea.

Zer gertatu ziztaion Manueli bere inguruko pertsonekin istripuaren ondoren?

Zer gertatu ziztaion Enekeri kirolean arrakasta izaten hasi zenean?

Zer gertatu zen Thaylorrek ez zuenean gehiago jasan "closetean egotea"?

Zer uste duzu esan nahi duela Filyk "Denok daukagu odol bera" esaten duenean?

Zer zailtasun aurkitu dituzte edo aurkitzen dituzte haien bizitzetan?

Zein giza eskubide urratu zaizkie Thaylorri, Filyri, Enekeri eta Manueli?¹

Zein da bideoko pertsona bakoitzaren indargunea?

Nola definitzen dute beren burua?

Zer duzu zuk komunean haiekin? Zerk bereizten zaitu haiengandik?

Istoriotako bat aukeratu eta 3 hitzekin azaldu zer eragin dizun.

Zer dute komunean bideoko pertsonak? Zerk bereizten ditu?

Aukeratu istoriotako bat eta deskribatu 3 hitzekin.

¹ Oro har, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 1., 2., 3., 12., 13. eta 22. artikulua urratzen dira. Giza eskubideen gainerako belaunaldietan sakontzeko klikatu [hemen](#).

3.1. Dinamika erraza: Izango banintz...²

12-14 urte (D.B.H. 1, 2 eta 3)

15'

Parte-hartzaile bakoitzari **folio laurden bat eta boligrafo bat** banatuko zaizkio, eta orria lau zatitan banatuko da:

Une horretatik aurrera, garrantzitsua da lana bakarka eta isilik egitea.

Lauki bakoitzean esaldi hauen erantzunak idatziko dira:

1. Animalia bat izango banintz...
2. Fruta bat izango banintz...
3. Ni leku bat izango banintz...
4. Pertsonaia bat izango banintz...

Proposamen hauek alda daitezke eta taldearentzat esanguratsuak diren gaiak aipa daitezke.

Pertsona guztiek beren karratuak osatu ondoren, taldearen baitan lau erantzun berak dituen norbait bilatu beharko dute 5 minutuz.

Denbora amaitzean, gertatutakoa komunean jarriko da eta galdetuko zaie ea inork aurkitu duen berea bezalako paperik. Erantzuna ezezkoa izango da. Era berean, galdetuko zaie ea norbaitek erantzun berdinen bat aurkitu ote duen. Erantzuna baiezkoa izango da. Hausnarketa gidatzeko, asanbladara pasako da (4. dinamika).

3.2. Dinamika konplexua: Diana

15-18 urte (D.B.H. 4 eta Batxilergoa)

15'

Oharra! Dinamika honetarako, talde-kohesio ona gomendatzen da, sistemak eragiten dituen botere-harremanak agerian geratuko baitira, hau da, seguruenik egoera zaugarrienean dauden pertsonak kanpoko zirkuluetan geratuko dira. Ezaugarri diskriminatzaileak agerian uzteak taldearen zaintza estrategiak eta modu eraikitzailean planteatzeko gaitasuna eskatzen ditu. Bideragarria ez bada, banaka planteatu daiteke, marrazkia eta galderak biltzen dituen fitxa baten bidez, bai eta idatziko hausnarketa baten bidez ere.

Espazioa hustuko da eta lurrean **sei zirkulu zentrokide markatuko** dira.



Pertsona guztiak zentroan kokatuko dira. Helburua bertan mantentzea da. Galdera hauek egingo zaizkie, eta baiezkotako erantzun bakoitzeko, hurrengo kanpo-zirkulura egingo da aurrera:

1. Neska edo genero ez bitarra gisa identifikatzen zara?
2. Gizarteak zugandik espero duen zerbait aldatzea gustatuko litzaizuke?
3. Zuk edo zure familiak muga bat zeharkatu duzue bizileku berri baten bila? Zure ikasgelako gehiengoarekin alderatuta, kultura desberdina duzue?
4. Eskailerak dituen edo iristeko zaila den leku batera zoazenean, sartzeko zailtasunak izaten dituzue?
5. Lau aldiz baino gutxiagotan hartu duzue hegazkin bat?
6. Zailtasunak dituzue ikasketetan?

Gertatutakoaz hitz egiteko eta hausnarketa gidatzeko, asanbladara pasako da (4. dinamika).

² Taldearen profilararen edo adinaren arabera, 3.1 edo 3.2 dinamika aukeratu behar da.

4. Asanblada

12-18 urte (D.B.H. eta Batxilergoa)	35-40'
-------------------------------------	--------

Aholkua! Hizkuntzaren zailtasuna adinera egokitu.

Amaitzeko, asanblada gidatua egitea planteatzen da. Lehenik eta behin, azken dinamika jorratzea proposatzen da. Taldeak aukera ematen badu, aurreko saioko galderak eragindako hausnarketak partekatzekeo tartea ere planteatuko da.

Hausnarketa partekatua: Izango banintz...

Nola sentitu zarete? Zer eragin dizue? Zergatik uste duzue ez duzuela erantzun guztiak berdinak dituen inor aurkitu?

Taldeko pertsonak anitzak direla eta, pentsamenduetan, gustuetan eta desioetan bat ez datozela hausnartzera lagunduko zaie. Pertsona bakoitza bakarra delaren ideia azpimarratzen da. Era berean, bat etorri diren erantzunek gainerakoekin ditugun puntu komunak direla aipatuko da.

Hausnarketa partekatua: Diana

Nola sentitu zarete? Zer eragin dizue? Zer uste duzue irudikatzen dutela zirkuluek?

Hurrengo hausnarketa bultzatuko da: taldeko pertsona guztiek errealitate desberdinak bizi dituztela eta, horregatik, guztiak ez daudela zirkulu berdinean. Era berean, zirkuluak Mendebaldeko gizarteetan pribilegioak nortasunaren zein ezaugarri dituzten azaltzeko modu bat dira, eta, horregatik, erdigunean daude: gizona, zisexuala, autoktonoa/mendebaldekoa, % 100eko mugikortasunarekin, klase ertain-altukoa eta ikasketaduna. Beraz, agerian geratuko da ertzeetara zer profil hurbiltzen diren eta kanpoko zirkuluetara gerturatu heinean gero eta modu ikusezinago batean bizitzen dela (adibidez, erreferente gutxiago daude). Amaitzeko, adieraziko da etiketak ez direla berezkoak, eta diskriminazio-ardatzak espazio- eta denbora-testuinguru batean oinarrituta eraikitzen direla. Horregatik, dinamikaren galderak aldatuz gero, beste pertsona batzuk geratuko lirake erdian. Laburbilduz, ezaugarri diskriminatzaileak testuinguruaren eta egoeraren arabera eraikitzen dira.

Hausnarketa partekatua: 1. saioa

Zer erantzun duzue galderetan? Zuen egunerokoan aniztasunean bizi zarete? Pertsona desberdinak ez bagina, nolakoak izango ginateke?, zer ez genuke izango? Zuen ustez, zein balio dira funtsezkoak aniztasunak existitzen jarrai dezan eta pertsona guztien giza eskubideak bermatzen jarrai daitezten?

Gogoeta-fitxako erantzunak bateratzea gomendatzen da, eta, ondoren, gainerako galderak egitea. Aniztasunaren blokea ixteko, garrantzitsua da indar-idea³ bat azpimarratzea. Ikasleen aldetik sortzen ez bada, irakasleek egitea gomendatzen da. Horretarako, ideia hau proposatzen da: pertsona guztiak bakarrak gara, bakoitza bere idiosinkrasiarekin, eta aniztasun horretan puntu komunak eta adostasunak behar ditugu elkar onartzeko.

3 Gizabanako edo talde bat bultzatzeko edo haren bilakaeran eragiteko gai den ideia (Seco, Andrés eta Ramos).

2. Blokea. Bizikidetzaz

1. Orekaren eta/edo puntu komunen jolasa

12-18 urte (D.B.H. eta Batxilergoa)

15'

Oharra! Mugikortasun murriztua, desgaitasun fisikoa edo beraien gorputzekin deseroso dauden pertsonak baldin badaude, beste dinamika bat erabiliko da, non ikaskide bakoitzarekin zer gustu, zaletasun edo alderdi komun dituzten eta horrek zer aukera emango lizkiekeen bilatu beharko duten (adibidez: beraiek bakarrik ezagutzen duten hizkuntza bat hitz egitea, plan batez gozatzea, pertsona komuna zaintzea).

Kontzentrazioa behar da, bai eta **elkar- eta talde-zaintza** ere.

Bikoteka, aurrez aurre jarri eta eskuak emango dizkio- te elkarri. Kontuz, besoak luzatu eta atzeraka erortzen utziko dira. Litekeena da bikoteko pertsona batek besteak baino gehiago pisatzea, beraz, batek belanak tolestuz orekatuko dira.

Oreka puntu bat aurkitu behar da, gorputza atzerantz etzanda eta besoak luzatuta edukitzeko 5 segundoz. Ondoren, bikotez aldatuko dute.

Helburua kontrapisu puntu hori aurkitzea da, eta saiatzen diren pertsona guztiekin lortzea. Horretarako, horietako bakoitzarekin joera edo jarrera desberdina hartu beharko dute. Kontuan izan behar da proportzio-puntua guztiekin aurki daitekeela, baita pisu/tamaina oso desberdineko pertsonen artean ere.

Lauzpabost bikote-aldaketa egin ondoren, galdetuko zaie nola sentitu diren, zer kostatu zaien gehien eta zer gutxien, eta zer gogoeta egiten duten. Hasieran oreka topatzea kosta egiten dela mahaiganeratuko da, baina saiatuz gero lortu egiten dela eta geroz eta errazagoa dela nabarmenduko da.



Agerian geratuko da pertsona batzuekin beste batzuekin baino gehiago kostatzen dela, baina era berean lor daitekeela. Amaitzeko, paralelismo bat bultzatuko da eta azpimarratuko da gure ideiekin eta pentsamenduekin gauza bera gertatzen dela, hau da, pertsona guztiekin, baita bakoitzarekiko ezberdinenak direnekin ere, elkar ulertzeko eta elkarri eusteko leku komun bat aurki daitekeela.

2. Bizikidetzaren arbola

12-18 urte (D.B.H. eta Batxilergoa)

35-40'

Oharra! Hizkuntzaren zailtasuna eta dinamikaren sakontasuna adinera egokitu.

Arbolak kolektibitatea irudikatzen du, eta zati bakoitzak (sustraiak, enborra eta fruituak) horren alderdi bat (balioak, mekanismoak eta nahiak). Taldearen bizikidetzaren sinbolizatuko duen eta kideak konprometituko dituen zuhaitz bat adostea da helburua. Adibide gisa:



- Sustraiak eta lurra = Balioak eta motibazioak: altruismoa, anbizioa, apaltasuna, ausardia, autonomia, borondatea, determinazioa, diziplina, elkartasuna, enpatia, erantzukizuna, errespetua, errukia, esker ona, eskuzabaltasuna, indarra, jakin-mina, konfiantza, kortesia, langintza, lankidetzaren, leialtasuna, maitasuna, objektibotasuna, ohorea, pazientzia, puntualtasuna, sakrifizioa, sinpletasuna, sormena, talde-lana, tolerantzia, ulermena, zintzotasuna, etab.

- Enborra eta adarrak = Mekanismoak eta konpromisoak: adeitasuna, elkarrizketa, esker ematea, komunikazioa, alde zuzeneko adostutako dokumentuak (eskola-arauak, bizikidetzaren akordioak, jokabide-kodeak, ondorioak), etab.

- Fruituak eta loreak = Emaizak eta nahiak: askatasuna, bakea, berdintasuna, dibertsioa, duintasuna, egia, egonkortasuna, elkarrekin artean ikastea, ezagutzak, harmonia, independentzia, inor atzean ez geratzea, inpartzialtasuna, jakinduria, jarraitutasuna, justizia, konfiantza, laguntasuna, maitasuna, ondasun komuna, ongizatea, ontasuna, osotasuna, poza, tratu onak, zioritasuna, zaintza, etab.

Kartulina edo papelografo batean arbola marraztuko da. Helburua da adostea atal bakoitzean zer kontzeptu izango diren taldearen ordezkari. Horretarako, pertsona bakoitzak bizpahiru hitz aukeratuko ditu maila bakoitzeko. Garrantzitsua da bereiztea zeintzuk aukeratuko lituzketen beren bizitzarako eta zeintzuk taldearentzat, balio edo desio batzuk desberdinak izan baitaitezke.

Ondoren, zuhaitzaren zati bakoitza jorratuko da. Bizikidetzarako beharrezkotzat jotzen dituzten balioekin has gaitzke. Gero, horretarako abian jarriko dituzten mekanismoekin. Azkenik, emango dituen fruituak aurreikus daitezke. Era berean, alderantzizko ordenan planteatu daitezke.

Taldearen arabera, lehenik hitzak talde txikietan eztabaidatuko dira, gero bateratzeko, edo zuzenean denek elkarrekin eraikiko dute arbola. Aukeratutako hitzak azaltzean, argudiatu beharko dute zergatik eta zertarako iruditzen zaien garrantzitsua haien hautaketa.

Elkarrizketan zehar, talde osoak adostutako hitzak idatziko dira. Adostasun handiena lortzen duten kontzeptuak letra handiagoetan idaztea gomendatzen da. Amaitzeko, pertsona guztiek bizikidetzaren arbola sinatzea gomendatzen da.